

# Sumin abstraktuak, zapata hondatuak

## ‘Solasaldia Sizilian’

du izenburu Elio Vittoriniren nobela euskaratu berriak. Hona liburuaren hasiera bikaina: «Negu hartan sumin abstraktuek hartua ninduten. Ez dut esango zein ziren, nire asmoa ez baita horretaz hitz egitea. Hala ere, esan behar dut abstraktuak zirela, ez heroikoak ez biziakik [...] Eta nik zapatak hondatuta nituen».

Sumin abstraktuak buru-behazunetan, euri etengabeak hondatutako zapatak oinetan. Faxismo betea. «Ez dut esango zein ziren sumin abstraktuok», dio narratzaileak uko eginez ideologiaren abstraktiotik hitz egiteari. Errealitateaz mintzatzeko, baliabide ezin hobeak dira ironia, surrealismoa, xarribaria, hizkera primitiboan

imintzioa... Narratzaileak badaki faxismoak gorroto dituela barrea, ironia, burla: sistema ideologiko itxiek (totalitarismoek bezala erlijioek ere) ez dute irria mai-

te. Faxistek-eta hain dituzte goi-goian beren buruak, non trufa duten etsairik minena.

Ez dago faxismo hitza aipatu beharrik faxismoaz mintzatzeko.

Pello Lizarralde itzuli berri duen *Solasaldia Sizilian* 1941 urtean argitaratu zen faxisten zentsurari iskin eginez. Neorealismo italiarra bere onenak ematen ari da, baina irakurleak ez du heroismo belkorik aurkituko Vittoriniren obran, ezta Italiako egoera politikoaren berri-emate ez-literarioer ere.

Bigarren Mundu Gerra eta haren osteko testuinguru politiko-soziala kontagai harturik, hari hurbiletik begiratu, objektibotasunez jardun, kaleko hizkera eta estilo zuzena landu... Horra, eskematikoki, neorealismoaz zabalduko dagoen klaxea zirenean bidetik. Baina hasierako neorealismoaren poetika askoz ere ugariagoa eta noranahikoagoa da hurrengo hamarkadetan idatzi zenaren aldean. Eta artean beti gertatzen den bezala, mugimendu gorenaren arnasa ere ez da betirako, eta iristen da une bat, zeinean hastapenetako indar sortzailea mehetzen den. Halatsu faxismo osteko neorealismoan ere: ez ziren jada garai onenak Vittorinirenak bezalako tonu poetiko eta jardun ironikoarentzat: neorealismoaren literatura mota bat, publizitatuena, gertuegi zegoen egunerokotasun politikoaren ispilu izatetik. Baina or-

durako, Vittorinik utzia zion idazteari; Italo Calvinok Oulipo izeneko tailer esperimentalak sortu zuen Raymond Quenaukin. Cesare Pavese, gogait eginda zegoen garaiko nobela asko errealitateaz fotokopiatzen ikusten zuelako.

«Glaziario neorealista» deitu zion Gesualdo Bufalinok. Proposamen estetiko berririk gabeko antzutzte hotz hegemoniko bat. Nobela bat idatzi eta tiraderan gordetzen zuen. Beste bat, eta tiraderara. Hogei urte egin zituen horrela, *Diceria dell'untore* (Izurrituaren kalamatika) argitaratu zuen arte. Sekulako arrakastarekin. Lortuko zukeen txalorik hogeitau urte lehenago, argitaratu izan balu?

## ‘Un ange passe’.

Zabaldua dagoen iritziaren kontrara, euskal literaturan uste dugun baino gehiago idatzi da

indarkeriaren eraginaz, presente hurbilean kontatutako obrekin bezala kontaktuzuna beste garai eta lekuetara eramanez, baina, indarkeria delarik leitmotiv nagusia. Gure debatea politikoa zen –funtsean, etikoa, hainbatentzat bederen– eta ez literarioa. Ez zen epaitzen kalitate literarioa, posizioa baizik indarkeriaren aurrean.

Izan da, ordea, gai hegemonikotik kanpo jardun duen idazle finik. Gera nadin Pello Lizarralderekin. Bufalinok bere nobelak tiraderan gordetzen zituen bezala, Lizarralde argitaratu egiten zituen *gauzaren* garaiko hegemonian, baina hautsik harrotu gabe, tximeleta bat agertu eta desagertu balitzaiguz bezala gure irakurlebegien aurrean.

Lehen bi liburuek ez zuten durundarik atera, baina bai irakurle eskarmentudun batzuen miresmena eragin.

Bitxi eta diferenteak ziren, beste atmosfera bat zekar-

ten giro literarioa. Iraupen ustez efimeroko sartu-irtena literaturaren plazan. Aldian behin, beste bisita bat, itxuraz hura ere efimeroa. Pixkana-pixkana haren mundua tokia hartzen ari zen irakurleriaren oroitzan.

Zer eskaintzen duen? Pertsonaia bat, bakarrik, ezer gutxi gertatzen zaion kontakizun batean. Hurrengo nobela batean, beste pertsonaia bat, beste lanbide bat, beste inguru bat, aurrekoaren trenpu bertsuan. Hurrengoan, halaxe. Gizaki baten bizitzaren *tranche de vie* edo bizitzaren pasarte labor bat, gehienetan peripezia askorik gabea. Zinari egindako keinu asko.

Liburu bakoitza (zazpi nobela labor eta bi ipuin-bilduma, oker ez banago) pertsonaia bakartien kaleidoskopio literario handi baten parte da, Patrick Modianoaren nobela bakoitza ere gerra osteko Pariseko aldirien mosaiko erraldoi baten tesela den bezalatsu.

## Irakurlea, idazle anonimo hori.

Lizarralderen narratzaileak ez digu esaten bere pertsonaia bakartiak direnik. Guk ikusten ditugu nonahitik noranahi, aldian behin norbaitekin, haren bidez jakiten dugu zerbait pertsonaiaz. Baina lauso geratzen zaigu bere izaera, gure bizitzatik pasatzen diren pertsona asko eta asko (gehienez?) lauso geratzen zaizkigun legez. Zer dakit auzoaz, astean pare bat aldiz etortzen zaidan postariak, egunero ogia erosten diodan dendariak? Lizarralderen narratzailea ez da begiluze diskreziorik gabe bat, errespetua dio –diskrezioa– pertsonaiari. Horretan datza, besteak beste, Lizarralderen narrazioen misterioa.

Horra irakurlea orriari orri bere pertsonaia osatzen: Lizarralderen proposamenetik abiatuturik, irakurle adina erreturatu fisiko eta psikologiko dituzte *Argiantzako* Ramonek, *Elur bustiako* Ramirok, *Larrepetteko* Josek eta Abelek edo *È pericoloso sporgersi*ko Joxe Azkuek.

Pertsonaia bakartiak: hosto ihartu bana udazkeneko orbelean. Eta liburu batetik bestera, giro, garai, atmosfera oso pertsonal bateko tonu delikatua, airean balebil bezala testuari arnasa ematen. Xehetasun doiak, fintasuna oparo hasieratik bukaeraino...

Lizarralderen liburu bakoitza auzolanean jarduteko gonbita onartu izanaren saria da irakurlearentzat. Eta saria izango du *Solasaldia Sizilian* itzulpenaren irakurketa ere. Lizarralde Vittoriniren mundua ekarri du bere estetikara, idazle askoren itzulpenak eruz dira autore maiteen omenaldi. Patrick Modiano, Gianni Celati eta Natalia Ginzburgen hainbat obraren itzulpenak ere Lizarralderen fikzioen albumean daude: Lizarralderen ibilbide literarioaren parte dira nobelak eta itzulpenak, mundu poetiko beraren haritik datoz sorkuntza propioa eta kanpotik ekarritako proposamenak.



**HIRUKO (H)ITZA**  
Anjel Lertxundi



MAITE MUTUBERRIA